



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Kirol Irakaskuntzen Ikastetxe Publikoa
Centro Público de Enseñanzas Deportivas
San Inazio auzoa, 5 · 48200 Durango · BIZKAIA
☎ 94 6550743 | 📧 94 6030668 | info@kirolene.net



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



IKASLEARENTZAKO GIDA

HASIERAKO ZIKLOA (GRADU ERTAINA)

Kirol-prestakuntzako ikastaro bat hasi berri duzu CPED KIROLENE KIIPen, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren zentro publikoan. Gida honetan, ikastaroaren dinamika hobeto ulertzen lagunduko dizun informazioa eskaintzen dizugu; horregatik, minutu batzuk erabili behar dituzu arretaz irakurtzeko.

1. ZER IKASIKO DUZU?

Araubide bereziko kirol-irakaskuntzak (EDRE), ziklo guztietan eta bakoitzean, bi eduki-multzotan egituratzen dira: (1) bloke komuna (edozein kirol-modalitate/-espezialitatearen prestakuntza-modulu komunak dira) eta (2) bloke espezifikoak (kirol-modalitate/-espezialitatearen berezko prestakuntza-moduluak dira). Zure kasuan, erdi-mailako hasierako zikloko bloke komuna ikasiko duzu, lau prestakuntza-modulu dituen:

2. IRAKASLEEN ORDUKO PRESTAKUNTZA-MODULUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUAK	ORDUAK
MED-C101: Kirol portaeraren oinarriak	20
MED-C102: Lehen sorospenak	30
MED-C103: Jarduera fisiko egokitua eta desgaitasuna	5
MED-C104: Kirol antolaketa eta Legedia	5
Guztira	60

Ikastaroak Sarrera Frogak, Haur eta Nerabeak indarkeria egoeretatik zaintzeko oinarritzko sentiberatasun ikastaroa, Eskola adineko kirolean euskararen erabilera sustatzeko estrategien ikastaroa eta bereganatutako ezagutzen defentsa azterketa dituenek, ikastaroari beste ordu batzuk gehitzen zaizkio.

Ikastaroak orohar 68.5 ordu ditu eta nahitaezko bertaratze 18 ordu ditu. Bertaratzea, bitan egin beharko duzu: Lehena, sarrera froga egin eta hainbat eduki zehatz lantzeko. Bigarrena, bereganatu dituzun ezagutzen defentsa azterketa egiteko. Bi bertaratzeen tartean, edukiak Moodle Plataforma eta tutore pertsonalizatu batekin jorratuko dituzu

PRESTAKUNTZA-MODULUAK.	PRESENTZIALAK	TELEMATIKOAK	ORDUAK
orduak.			
Sarrera Froga	1		1
MED-C101: Kirol portaeraren oinarriak	3.5	16.5	20
MED-C102: Lehen sorospenak	10	20	30
MED-C103: Jarduera fisiko egokitua eta desgaitasuna	1	4	5
MED-C104: Kirol antolaketa eta Legedia	1	4	5
Haur eta Nerabeak indarkeria egoeretatik zaintzeko oinarritzko sentiberatasun ikastaroa.		3	3
Eskola adineko kirolean euskararen erabilera sustatzeko estrategien ikastaroa.	1	3	4
Bereganatutako ezagutzen defentsa azterketa.	0.5		0.5
Guztira	18	50.5	68.5

3. KONBALIDAZIOAK

Eduki programa aztertu eta gero, edukiren bat konbalidatzea dagokizula ulertzen baduzu, jakizu, matrikularekin batera egin beharko duzula eskaera. Eskaera, guk Espainiako Kiroletako Kontseilu Gorenari bidaliko diogu, hari baitagokio horiek onartzea.

Konbalidazioak goian adierazi dugun moduan, Kirol Kontseilu Gorenan eskatu behar dira:

- Aurre-matrikula online egin. Dokumentazioa atxikitu eta ordainketa egin, beti ezarritako epeak kontutan hartuta.
- Kirol Kontseilu Gorenaren eskaera orria bete eta sinatu (atxikitzen da). Goian esan dugun lez, ahalik eta arinen postaz bidali ORIGINALA Kirolenera. Erantzuna jasotzerakoan, emandako konbalidazioak markatu eta irakasleei abisatuko zaie. Eskatutako moduluren bat, ez badute konbalidatzen, horren zati proportzionala ordaindu beharko da.
- Ikaslearen ardurapean gelditzen da klaseetara joan ala ez Kirol Kontseilu Goreneko erantzuna izan arte baldin eta formakuntza hasita badago. Gure gomendioa egoera horretan beti izango da prozesu akademikoetan normaltasunez parte hartzea emaitza ziurtatzeko ikasleari.
- Ziurtatu ondo daudela emandako telefonoa eta emaila, horien bidez egiten direlako abisu guztiak.

4. NOLA EMAN IZENA

Matrikulak bi urrats ditu. Hezkuntza Saila garenez, lehenbizi, gure [IKASGUNE plataforman](#) erregistratu beharko zara eta ondoren, MADE ikastaroan apuntatu.

[Gehiago jakin nahi baduzu sartu hemen](#)

Matrikulaziora begira gure web gunetik pausuz pausu dena azalduta dago:

Eskatzen den dokumentazioa atxikitu behar da Ikasguneren bidez. Dokumenturen bat, ez badaukazu edo ez badakizu zer den, edozein dokumentua atxikitu nahiz eta errepikatuta egon. Izartxoak duten zelaiak, derrigorrez bete behar dira eta. Bukatzerakoan, gorde eta bidali behar da. Ondo eginda dagoela jakiteko, Ikasguneko karpetara joan (onarpen eskaerak) eta “Egoera” atalean, “bidalita” bezala agertu behar da, bestela zeozer bete barik edo bidali barik egongo zen.

-Idazkaritzatik, eskaerak banan banan begiratu behar ditugu. Zeozer faltan badago, abisua jasoko duzue. Adi egon epekeaz.

-Matrikularen egoera eta jarraipena, Ikasgunetik ikusi eta egin ahal da edozein momentuan.

-Ordainketa egiten denean, justifikantea gorde, edozein arazoa egonez gero aurkezteko. 24-48 ordu beranduago agertzen da aplikazioan baieztapena. Behin ordainketa eginda egon, matrikularen prozedura amaituta dago.

-Kurtsoa hasi baino egun bat lehenago, emailara bidaltzen dira Moodleera sartzeko pasahitzak. OSO GARRANTZITSUA da Moodlean publikatuta dagoen “Ikaslearen Gida” irakurtzea, bertan kurtsoaren inguruko informazioa datorrelako, baita irakasleen emailak.

-Edozein zalantza akademikoarekin, dagokion irakaslearekin kontaktuan jarri.

-Edozein zalantza edo arazo administratiboa izanez gero, Kiroleneko idazkaritzarekin jarri harremanetan:

5. NOLA IKASIKO DUZU?

Eskaintza mota partziala da blokeka eta ERDI PRESENTZIALA modalitatean (Kirol Portaeraren, Jarduera Fisiko Egokituaren eta Desgaitasunaren eta Kirol Antolaketaren Oinarriak eta Lehen Sorospinak moduluetarako); hau da, ordu batzuk PRESENTZIALAK izango dira, beste batzuk Moodle hezkuntza-plataformaren bidez egingo dituzu, eta AMAITZEKO; LANDUTAKO ERRONKAK IRAKASLEEN AURREAN AHOZ DEFENDATUKO DUZU LANDUTAKO KIROL PROIEKTUAREN BERRI EMONEZ 15 MINUTU AHOZKO EBALUAKETA SAIOAN (azterketa egunean).

Guzti hau eskainiko dizugu, prestakuntza-modulu bakoitzaren erronkez osatutako kirol proiektu bat eginez. Presentzialtasun asistentzia kopurua betetzeko % 80era joan behar zara, modulu bakoitzean baldintza hau beteaz. Saio bakoitzean, irakasleak zeregin edo lan txikiren bat egiteko eskatu ahal izango du, eta lan hori Moodle-ren dagokion atalean entregatu beharko da.

Data akademiko garrantzitsuenak: MOODLEKO IKASTAROAREN FITXAN KONSULTATU AHAL DITUZU ETA SORTZEN ZAIZKIZUN ZALANTZAK IRAKASLEARI FITXAN ADIERAZITAKO KORREO ELEKTRONIKOETAN.

6. LAN-METODOLOGIA

Jarraian, ikasturtean erabiliko dugun metodologia azalduko dizugu. Prestakuntza bi bloke handi ebaluagarritan banatuta dago:

1. Autoebaluazio-proba: Lehen bloke honetan, Moodle hezkuntza-plataforma erabiliko dugu. Bertan, apunteen edukiak irakurri eta bereganatzeaz gain, **autoebaluazio-proba** bat egin beharko duzu. Proba horretan, ikasturte honetarako proposatutako edukiak ulertu eta barneratu dituzun baloratuko dugu. Proba hau auto-zuzentzailea da eta egiteko aukera 1 izango duzu. Irakasgai bakoitzaren **autoebaluazio-probak** 60 minutuko denbora mugatua izango du, eta egutegian markatutako egun jakin batean irekita egongo da, zuk nahi duzunean egin ahal izateko.

* Autoebaluazioak egin ahal izateko, prestakuntza-modulu bakoitzari dagozkion bideoak ikusi behar dira Moodle-n.

Gaizki-ulertuak edo nahasteak saihesteko, erronka guztiak dokumentu bakar batean aurkeztu beharko dira, erronka bakoitza kapitulu edo atal gisa hartuta.

Jarraian, garatu beharreko proiektua azalduko dizugu:

2. Proiektua: Bloke honetan, 2 erronkaz osatutako proiektu bat gauzatuko duzu. Bertan, zure lana eta edukien asimilazioa baloratuko ditugu. Proiektu hori epaimahai baten aurrean defendatu beharko duzu. Proiektu horren aurkezpena eta entrega-data egutegian zehaztuko dira.

Gaizki-ulertuak edo nahasteak saihesteko, erronka guztiak dokumentu bakar batean aurkeztu beharko dira, erronka bakoitza kapitulu edo atal gisa hartuta.

Jarraian, garatu beharreko proiektua azalduko dizugu:

PROIEKTUA

(2-3ko lan taldeetan egiteko aukera baldin eta talde osoak modu proaktiboan lan egiten badu)

Helburua: Proiektu honek bi helburu ditu:

- 1- Monitore zauden entitatearen antolaketa ezagutzea.
- 2- Entitate horretako 2 saio antolatzea, adin tarte ezberdinei bideratuta

1. ERRONKA Zure entitateko egitura deskribatzea.

(MED-C104: Kirol antolaketa eta Legedia moduloarekin lotura duena)

Hauek dira azaldu behar dituzun atalak:

- 1- Entitate mota
- 2- Eskaintza adin ezberdinetan (zer, noiz eta non)
- 3- Monitorean eta entrenatzaileen zerrenda, haien titulazioak eta hizkuntza gaitasuna
- 4- Entitatearen Lopivi protokoloa eta arduraduna
- 5- Entitatean hizkuntzak duen presentzia orokorra (webgunean, sare sozialetan, kartelak...)
- 6- Entitatearen antolaketa, karguak eta bakoitzaren egitekoak
- 7- Zure egiteko eta betebeharrak azaldu

2. ERRONKA Zure entitateko taldeentzat bideraturiko 2 saio prestatu. Saio bakoitza 60 minutukoa izan behar da eta bi saioek ezaugarri bereziak izango dituzte bai desgaitasunaren (irakasle arduradunak zehaztu beharrekoa) eta bai hizkuntza testuinguruaren aldetik. (*MED-C101: Kirol portaeraren oinarriak moduloarekin eta Jarduera Fisiko eta desgaitasunarekin lotura duena*).

2.1 Zehazturiko desgaitasun eta hizkuntza testuinguruko **JOLASHEZIKO** saio bat prestatu, **aurre-benjaminiei** bideratua (**6-7 urte**). Dokumentazio lagungarria duzu hemen ([esteka](#)).

Hizkuntza-testuingurua

- Haur bat duela urte bete inguru etorritakoa da herrira eta ulermen maila du (hitz batzuk esaten ditu euskaraz, baina elkarrizketa osoa oraindik ez)

2.2 Zehazturiko desgaitasun eta hizkuntza testuinguruko gustokoen duzun **kirol modalitateko** saio bat prestatu, **benjaminiei (8-9 urte) edota alebinei (10-11 urte)** bideratua izan daiteke (zuk aukeratu). Dokumentazio lagungarria duzu hemen ([esteka](#)).

Hizkuntza-testuingurua

- Euskaraz oso ondo moldatu arren gaztelaniarako joera dute haurrek. Erraztasun gehiago duten 4 haur dituzu taldean.

Saio bakoitzean, atal hauek landu behar dira:

- 1- Helburuak:
- 2- Edukiak
- 3- Ariketak
- 4- Antolaketa
- 5- Materiala
- 6- Ebaluazio irizpideak
- 7- Metodologia
- 8- Saioaren ondorioak

Desgaitasuna duen zure ikaslea kasuaren inklusioa aurkezteko irizpide hauek aztertu:

- Independentzia-, segurtasun- eta auto-konfiantza-maila.
- Bere gabeziaren aurrean duen jarrera.
- Zure taldean integratzeko eta gizarte-harremanak ezartzeko gaitasuna.
- Duen urritasun-maila eta -mota.
- Urritasuna agertzen den unea.
- Lotutako defizit bat dagoen ala ez (desgaitasun bat)
- Patologiaren erritmoa (progresiboa edo ez).
- Garapen motorren eta pertzepzio- eta motor-garapenaren asaldura-maila.
- Estimulazio goiztiarraren presentzia edo gabezia.
- Laguntza teknikoak.
- Egokitzapen zehatzak eta zehatzak saioko ariketa edo ataza bakoitzean.

Argi dago apunteak erabili ahal izango direla erronka hau egiteko, baina inola ere ez da onartuko horien kopia luzerik, apunteak tratatutako kirolaren errealitatera egokitzea baita helburua.

Lan guztiek azala, aurkibidea eta bibliografia izan behar dituzte.

Gomendatutako irakurgaiak:

- Jolas-Hezi ([esteka](#))
- Eki Gida ([esteka](#))
- Eskola Kiroleko urteko programa ([esteka](#))
- Gipuzkoako Eskola Kiroleko Euskarriak ([esteka](#))
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Kirol Dokumentuak ([esteka](#))
- Sánchez, D. B., & Ramírez, F. A. (1999). *La iniciación deportiva y el deporte escolar*. Inde.
- Hizkuntza Estrategiak kirolean moduluko 5. Gaia, "komunikazioaren garrantzia" atala (Moodle-eko plataforman eskuragarri).

7. OHIKO ETA EZOHIKO EBALUAZIO-PROZESUA

6.1. Azken kalifikazioaren ehunekoak

PRESTAKUNTZA-MODULUAK	Autoebaluazioa	Proiektua	Defentsa
MED-C101: Kirol portaeraren oinarriak	30%	50%	20%
MED-C102: Lehen sorospenak	60%	40% (Praktika)	
MED-C103: Jarduera fisiko egokitua eta desgaitasuna	30%	50%	20%
MED-C104: Kirol antolaketa	30%	50%	20%

7.2 Bestelakoak


7.2.1. Proiektuaren defentsa: Ikasle talde bakoitzak 20 minutu izango ditu guztira epaimahai baten aurrean defendatzeko. Ikasleak gai izan beharko du epaimahaiak egiten dizkion galderei erantzuteko, eta, horretarako, bere erantzunak oinarritu eta argudiatu beharko ditu, proiektuan landutako edukiaren arabera. Nahiz eta proiektua taldeka lantzeko aukera izango duzuen proiektuaren defentsa bakarka baloratuko da eta ezin da huts egin irakasleak planteatuko dizkizuen galderetan **KIDE BAKOITZARI GALDERA EZBERDINAK EGITEKO AUKERA DUELARIK IRAKASLEAK BALDIN ETA ERRONKA EZBERDINEK HORRELA ESKATZEN DUTELAKO**. Salbuetsita dago Lehen Sorospenak froga honetan, ebaluaketa irizpideak bertan modu ezberdinean baloratzen direlarik.

7.2.2. Autoebaluazioak egin ahal izateko, bideoak Moodle-n ikusi behar dira.

7.2.3. Aparteko ebaluazioan, aurretik gainditu ez diren zatiak baino ez dira egin beharko.

7.2.4. Deialdi arruntean proiektuen kopiak edo plagioak egiten badira, ez da defentsarako eskubiderik izango, eta zuzenean **ezohiko deialdira** igaroko da. Kopia edo plagioa **ezohiko deialdian** egiten bada, ezin izango dira gainditu modulua edo moduluak.

IKASTAROA GAINDITZEKO, EZINBESTEKOA IZANGO DA MODULO BAKOITZAREN SAIOEN % 80ra JOATEA ETA EBALUAKETA ALDE GUZTIAK ONARTUTA IZATEA ETA IRAKASLEEK SAIO BAKOITZEAN PROPOSATUTAKO ZEREGIN GUZTIAK GAINDITZEA



© Kirolene
www.kirolene.net